



ikastolak



LABIAGA IKASTOLA
BERA



Gurasoen partaidetza Labiaga Ikastolan

GURASO ETA BAZKIDEEN ELKARLANA EZINBERTZEKO DA LABIAGA IKASTOLA AITZINERA ERAMATEKO

Testua eta argazkiak Labiaga Ikastola

Beran hezkuntza euskalduna izateko herritar eta guraso batzuek Labiaga Ikastola sortu zuten 1974an. Gaur egun ere, ikastolako partaide guztien gogoia oinarri duela, ikasleen, gurasoen, profesionalen eta laguntzaileen arteko kooperazioa indartzeko Labiaga ikastolak talde desberdinak ditu. Hala nola, batzordea, mantenu, lorezaintza, talo eta guraso taldeak.

FAMILIEN PARTE HARTZEA IKASTOLA BARRENEKO EKINTZETAN Irakasle eta gurasoen arteko elkar harremanak indartzea garrantzitsua da Labiaga ikastolarentzat. Familiaren presentzia areagotzeko jarduerak bultzatzen ditugu. Izan ere, badakigu, haurrari familiako kideekin duen atxikimenduak konfiantza ematen diola, eta ikasleak irakaslearekin lotura hau garatuz gero, ikasketa prozesua ahalik eta egokiena izatea lortuko dugu.

Horrela ba hezkuntza proiektua aberasgarriagoa izan dadin, ekintza ezberdinetan parte hartzera gonbidatzen ditugu familiak:

- Ipuinak: Juul kanpainaren baitan, irakurketa zaletasuna bultzatzearren, familiak gelara etorri ohi dira ipuinak kontatzera.
- Gurasoen Lanbideak ezagutuz: Eliekadura osasuntsua eta sukaldaritza; musika entzunaldiak musika tresna ezberdinekin; josteta; medikuak-erizainak lehen sorospenak; xaboi tailerrak; erlezaina...

Aurten, Haur Hezkuntzan, *Gorputza* proiektua lantzeko, ikasleek nor-

beraren gorputza kanpotik eta barrutik ezagutzeko eta sarri medikura joatearen arrazoiak dela eta, gune desberdinak sortu dira gelatan: medikurako ordua hartzeko harrera, farmazia eta medikuaren kontsulta. Goxotasunetik, gertutik eta konfiantza duten bi guraso erizainen eskutik ikasi izan ahal dute txikiak.

Bertzetik, sukaldaritza tailerraren barruan, ikasle baten aitak gozotegi batean lan egiten duela aprobetxatuz, txokolateteo turroia nola egiten den ere ikasteko aukera izan dugu.

HORRELA IKUSTEN DUTE GURASO TALDEKO KIDEEK BERE EGINKIZUNA Guraso Taldea Labiaga ikastolako taldeetako bat da, bertzeak bezala, denen artean bolondres moduan eta auzolanean aitzinera ateratzen dena. Partaideen artean, batzordekidea den guraso bat, irakasle bat eta geletako guraso arduradunak daude (HHtik DBH 2ra).

Urtean zehar, Ikastola barrenean nahiz Berako herrian antolatzen diren ekintza desberdinak gauzatzeko, gela bakoitzak dagokion ardura hartzen dugu, hala nola:

- Ikastolan bertan: gurasoentzako ikastaroak; Inude eta artzainetako konpartsa; Euskara, KiVa, Liburuaren eguna; Agate eguna...
- Berako herrian: Lurraren eguna, Olentzero, Errege eguna, inauteriak, Berako bestak...

Horretarako, guraso arduradunek gainerako gurasoen artean partaidetza eta auzolana bultzatzeko lan egi-



Guraso eta senideak ikasleekin, ikastolan antolatutako ekimen batean.



Gurasoak xakean aritu ziren haurrekin.

ten dugu. Honetaz gain, zubi lana egin eta ikastolako informazioa zabaltzen dugu dagokien taldean (batzordekidei, irakasle, gurasoei...).

ZER DA LABIAGA IKASTOLA HITZETAN? Hurbiltasuna, konfiantza, laguntza, ardura, elkarlana, mugimendua, igo-
rlea, laguntasuna...


Ekintza desberdinen bultzatzailea - "Zer gura, lortu hura" - Gurasoen inplikazioa lortzeko talde dinamikoa, erronka, babes... ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zeintzuk dira aurten Haur Hezkuntzan gorputza lantzeko prestatutako hiru guneak?
 2. Zein taldetan parte har dezakete ikastolako gurasoek?
 3. Guraso Taldearentzako, Labiaga Ikastola zer den adierazten duten 3 hitz aukeratu.
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

- OINEZ BALEA (1): Amaia Resano (Ibaialde Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Enaitz Goñi (Baztan Ikastola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia): Kattalin Muratori (Baztan Ikastola).
ASEGARCE (4 sarrera): Oinatz Gonzalez (Paz de Ziganda Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.